



AZPEITIA

XXVIII.


EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK



Euskal Antzerki Topaketak
2010eko udazkena

XXVIII.

**EUSKAI
ANTZERKI
TOPAKETAK**





Batzordea

Antzerkia eta euskara uztartzen dituzten XXVIII. Topaketak atezoka ditugu, izan ere, euskal antzerkiaren aldeko apustua egiten jarraitzen du Azpeitiko Udalak eta herritarrei nahiz kanpotarrei ahalik eta egitarau zabalena eskainiko zaie. Gainera, Azpeitiak antzerkirako duen tradizio honen emaitza bezala, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarateak bere egoitza herrian finkatuko du, Enparan Dorretxean hain zuzen ere.

Azaroaren 5ean hasi eta 21era bitartean era guztietako saioak ikusteko aukera izango da; besteak beste, talde profesionalak, amateurak eta haurrei zuzendutako euskarazko obra onenak iritsiko dira Azpeitira. Eskainiko diren lan guztien artean, bi estreinaldi nabarmendu behar ditugu. Batetik, Hortzaka taldeak emanaldi berri-berria eskainiko du azaroaren 18an Gaztetxean. 21:30etik aurrera kafea hartu eta Kale edo bale? antzezlanak ikusi ahal izango delarik. Bestetik, eta aurtengo Antzerki Topaketei amaiera emateko, Oihulari Klown-ek Xake lehenbiziko aldiz euskaraz aurkeztuko du 19:30ean Izarraitz pilotalekuan.

Profesionalz gain, antzerki amateurak ere bere asteburua izango du Topaketen baitan. Azpeitian arrakasta handia izaten duen modalitatea da hau, herrian antzerkia gustukoa denaren seinale garbia. Horrela, azaroaren 12tik 14era arte Itzurungo Uhuinak antzerki taldeak, Taupadak eta Azpeitiko emakumeen tailerrak lan desberdinak taularatuko dituzte. Hilaren 15etik 18ra, berriz, haur eta gaztetxoei zuzendutako emanaldiak izango dira.

Antzerkia ikusi eta gozatzeko parada bikaina izango da, beraz, hurrengo asteetan zehar. Eta guztia euskaraz; euskara hutsean aritzen diren taldeen eta lanen erakustoki eta sustatzaile izatea baita Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketen helburu nagusia.

ANA MENDIZABAL

Kultura Batzordeburua

4, osteguna

AURKEZPENA

12:00ean,
Udaletxeko Areto
Nagusian

5, ostirala

**HELDUENTZAT
ANTZERKI EMANALDIA**
“KLOWNKIDETZA”
LANDABERRI
ANTZERKI ESKOLA
21:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

6, larunbata

**HELDUENTZAT
ANTZERKI EMANALDIA**
“ARRASTOA”
TXALO
21:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

7, igandea

TXIKI + HANDIENTZAT
“ANTARTIKAKO
LOREA”
ERRE PRODUKZIOAK
18:00etan,
Izarraitz pilotalekuan

**Antzerki
amateurri
zuzenduriko
asteburua**

12, ostirala

“ZER DIYON?”
Izurungo Uhuinak
Antzerki Taldea
21:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

13, larunbata

“(LO)TURAK”
AZPEITIKO EMAKUME
TAILERRA
21:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

14, Igandea

“ISLADAK”
TAUPADA
19:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

**15/16/17
eskola edo
gaztetxoei
zuzenduriko
antzerkia**

11:00etan eta 15:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

18, osteguna

ESTRENALDIA

**ANTZERKI
ALTERNATIBOA**
“KALE EDO BALE?”
HORTZAKA TALDEA
21:30ean, Gaztetxean

19, ostirala

**HELDUENTZAT
ANTZERKI EMANALDIA**
“ERRAUTSAK”
LE PETIT THÉÂTRE DE
PAIN eta ARTEDRAMA
21:30ean
Izarraitz pilotalekuan

20, larunbata

**HELDUENTZAT
ANTZERKI EMANALDIA**
“DEMODE OUARTET”
ZTP
21:30ean,
Izarraitz pilotalekuan

21, igandea

**TXIKI + HANDIENTZAT
AMAIERAKO JAIA
KALE ANTZERKIA**
“EXODO”
EN LA LONA
18:00etan, Herriko
kaleetan eta Plaza
Nagusian

ESTRENALDIA

**HELDUENTZAT
ANTZERKI EMANALDIA**
“XAKE”
OIHULARI KLOWN
19:30ean
Izarraitz pilotalekuan

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

**EGUZKIÑE EGAÑAREN
KARTELAK
IRAGARRIKO DITU
AURTENGO ANTZERKI
TOPAKETAK**



Nahiz eta lehenbiziko aldiz aurkeztu da aurten Eguzkiñe Egaña Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketara lehen saria bereganatzea lortu du. Artista zarautzarra "oso oso gustura" agertu da sariarekin, ez baitzuen espero.

Egañak Publizitateko ikasketak egin zituen eta urte asko daramatza diseinatzaile grafiko bezala lanean, baina 2010 urtea nabarmentzen du bereziki, izan ere, Azpeitiko lehiaketaz gain, Zarautzeko Emakumearen Eguneko eta Urnietako Sanmiel festetako kartel lehiaketak irabazi ditu.





5 ostirala

Helduen antzerki emanaldia

“KLOWNKIDETZA”

LANDABERRI ANTZERKI ESKOLA

21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Klown talde honek erietxean gertatzen diren egoera absurdoak kontatzen ditu.

Gai serio eta tristea humorez kontatua edo sujeritua da.

Gaixoei ematen zaien tratua, gaixotasun iragarriak, egongeletan gertatzen diren egoera barregarriak, mediku xelebreak e.a.

Gaixoa erietxera iristen da. Diagnostikoa egiten zaio, operazio arriskutsu bat jasaten du. Sendatzeko bidean jartzen dute, familiartekoen bisitak... eta erietxea uzten du sendatuta.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaria: Joserra Fachado
- Aktoreak: Junkal Pérez
Kontxu Iartza
Donetz Iradi
Ane Uitzu
Jesus Mari Presa
Estitxu Garmendia
Mailu Arruti
Mirentxu Egizabal
- Atrezzoak: Landaberri antzerki eskola


6 larunbata

Helduen antzerki emanaldia

“ARRASTOA”

TXALO

21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Andrew Wyke intrigazko nobelagile ospetsua da. Jokuzale amorratu, munduko txoko guztietatik ekarritako jokuz betea du etxea. Egun batean, Milo Tindlek bisita egingo dio. Tindle italiar jatorriko gizon gaztea da, bidai ajezti baten jabea. Elkarrekin solasean eta tragoxka bat edaten ari direla, Andrewk plan bat proposatuko dio: Ustez biak irabazle irtengo diren joku arriskutsu bat.

Erremediorik gabe harrapatuko zaituen intriga.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Egilea: Anthony Shaffer
- Egokipena eta itzulpena: Ramon Agirre
- Zuzendaria: Begoña Bilbao
- Zuzendari laguntzailea: Iraitz Lizarraga
- Aktoreak: Ramon Agirre
Asier Hormaza
Juan Garai
- Eszenografia: Lorenzo Collado
- Eszenografia egilea: Cañaveral Decorados
- Jantziak eta atrezzoak: Cristina Martinez
- Argiak: Xabier Lozano
- Efektu bereziak: Gorka Agirre
- Teknikaria: Andoni Mendizabal
- Makinista: Unai Olano
- Argazkiak: Manix Diaz de Rada
- Kartela: ANTZA
- Ekoizle burua: Xabier Agirre
- Ekoizle laguntzailea: Martín Agirre
- Bulegoan: Gema Etxeberria
Eneritz Saralegi
- Gestoria: HATOR
- Aseguradora: FREMAP
- Banaketa: ZTP
- Ekoizpena: TXALO S.L

*Eskerrak:

Alasne Legarreta, Jexuxmai Lopetegui, Zubeldia kirolak, Lejarreta burdindegia, Nerea Salas.



7 igandea

Txiki+Handientzako

“ANTARKIKAKO LOREA”

ERRE PRODUKZIOAK

18:00etan, Izarraitz Pilotalekuan



Klaus abenturazale gaztea da. Mundu osoan zehar bidaiatzen ibili eta gero etxera buelta egitea erabaki du. Gure planetan bakarra den oparia ekarriko dio Albert jaunari, bere aitari: Antartikako Lorea. Baina Klausek ez luke sekula imajinatuko bere aita boteretsua eta arduragabea zertan ari den.

Albert jaunak Z Makina martxan jarri nahi du Antartikako Lorea erabiliz. Makina beldurgarri hau ingurugiroarekin suntsitzailea da guztiz, uraren neurrigabeko erabilera egiten duelarik. Tramankulu tamalgarri honen ekoizpen basatia aurrera eramanez gero gure planetan geratzen den ur apurra guztiz erabilgaitz geratuko litzateke.

Orduan, Klausek Winston zientzialariarekin batera aitari zertan ari den erakutsi nahi izango diote eta, batez ere, etorkizunerako Z Makinaren ondorio latzak zeintzuk izan daitezkeen ikusi erazi nahi izango diote.

Posiblea ote da urik gabeko bizitza? Lortuko ote dute, orduan, Albert jaunak eta bere aldekoek Z makina martxan jartzea?

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Egilea: Galder Perez
- Zuzendaria: Galder Perez
- Aktoreak: Iñaki Urrutia
Gorka Mínguez
Imanol Rodríguez
Alfonso Díez
Mixel Santamarina
- Musika: Rafa Rueda
- Koreografia: Maitane Zalduegi
- Irudiak: Kote Camacho
- Atrezzoak: Asierito – Gorki
- Eskenografia: gorka mínguez
- Teknikaria: Arantza Heredia
Andoni Menizabal
- Produkzioa eta banaketa:
ERRE Produkzioak

XXVI EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

12 ostirala Antzerki amateurra

“ZER DIYON?”

ITZURUNGO UHUINAK ANTZERKI TALDEA
21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Zazpi Emakumek ausardiaz taula gainera igo eta beren bizipenak (eta bizi alaitasunak) kontatuko dizkigute, haurtzarotik hasi ,eskolatik pasa, mutilekin dantzan, lanean, , amatasunean ,eta abar.....gaur egun arte.

Emakumeen ikuspuntutik ikusita azalduko zaigu azken 50 urteren historiaren gogoeta kritikoa, umorez, ausardiaz , eta era hunkigarri batean antzetzua.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Aktoreak: Luisa Mari Aristondo
Itziar Odriozola
Nekane Sorraluze
Ixabel Dorronsoro
Marikarmen Etxabe
Loli Aramendi
Arantxa Ostolaza.
- Zuzendari laguntzaile, jantziak eta gehiago:
Pili Egiguren eta
Mari Paz Agirrezabalaga.
- Koreografia: Mari Paz Agirrezabalaga.
- Argiak: Edi Naudo
- Soinu Teknikaria: Goiz-Eder Iturain.
- Zuzendari, idazle eta Musika egilea:
Inazio Tolosa.
- Grabatutako ahotsak:
Ane Manterola eta, Ara Castaño (haurrak)
Mari Paz Agirrezabalaga, Ramon Agirre.
- Kartela : Imanol Manterola.
- Ekoizpena: Zumaiaiko Udala



13 larunbata

Antzerki amateurra

“(LO)TURAK”

AZPEITIKO EMAKUME TAILERRA
21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Antzerki lan honetako protagonistek, erabat zaharkitua dagoen lantegi batean egiten dute lan. Sardinak latetan sartzean datza beren zeregina. Ez dute egiten dutena gustuko; beren ametsak beste batzuk dira. Eta hau gutxi balitz, beren arteko harremana ez da oso ona.

Egoera honetan, ostiral arratsalde batez, ezusteko bati aurre egin beharko diote, eta bakoitzaren izaera, amets, beldur eta egiak agerian geratuko dira.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Gidoia: Alaitz Olaizola
- Aktoreak: Garazi Urbina
Arroxa Borda
Ane Arenas
Amaia Zeberio
Miren Alcedo
Erika Olaizola
Rosa Mari Alberdi
Amaia Garmendia
M.karmen Borda
Aizpea Ibarbia
Kontxi Roldan
Gurutze Eizmendi

- Zirikatzailea: Alaitz Olaizola
- Laguntzaileak: Maite Agirrezabala
Pili Lizarburu
Lurdes Mendizabal
Lakrikun Antzerki Taldea
- Laguntza eta antolakuntza:
Parekidetasun Saila
Emakumeen Mahaia
- Eszenografia:
Emakumeen Antzerki Tailerra

14 igandea Antzerki amateurra

"ISLADAK"

TAUPADA ANTZERKI TALDEA
19:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



"Gure pertsonaiak bizitzaren bidaian murgilduta daude eta ez dira ohartzen konformismo eta aisetasun makilari bueltak ematen ari diren bitartean, bizitza joaten ari zaiela"

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaritza: Edurne Lasa
 - Ekoizpena: Taupada
 - Argiak eta soinua: Joxemari Larrañaga
 - Diseinu grafikoa: Daniéle Zelaia Cooper
 - Aktoreak: Oihana Etxabe
M^a Angeles Zabala
Aitor Gisasola
Gorka Fernandez
Enkarni Migales
Aintzane Etxaide
Daniéle Zelaia Cooper
Nerea Gil & Jon Olivares
 - Atrezzoak: TAUPADA
 - Ekoizpena: Elgoibarko Udala
- Eskerrak: Jose Otaegi (STY-FUN)

eskola antzerkia



Euskal Antzerkirik izango bada "harrobia" ere landu eta zaindu beharra dago. EAEko 235 ikastetxeetan landuko da ikasturte honetan euskarazko antzerkia, 762 taldetxo arituko dira antzerkiaren lanketan. Azpeitiko topaketa hauen proiektuak bezalaxe Hezkuntza Sailaren ekimen honek hogeitaka urte ditu dagoeneko. Sortu zenerako, 1985ean, Azpeitiko bazen eta bi proiektuen arteko uztardura ordutik dator. Azpeitiko topaketa hauek EAEko bazter guztietako ikasleen antzerki emankizunen eraskuslehio dira batetik eta bestetik eskualdeko antzerki ikusleen "harrobia"-ren lanketa gune ere badira. 25 urte dituen uztardura oparoa gertatu da orain arte eta espero dugu aurrerantzean ere horrela izatea.

MIREN JULE AZURZA

Euskara Zerbitzua

NOLEGA teknikaria

15 astelehena

Antzezlana: **PATXISTEIN DOKTOREA**

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Ikasberri Azpeitiko Ikastola (Gipuzkoa)

Antzezeleen maila: DBH 2 maila

Ikusleak: DBH 1 eta DBH 2 mailak

Iraupena: 25 bat minutu

Antzezlana: **KALE KANTOI**

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Ikasberri Azpeitiko Ikastola (Gipuzkoa)

Antzezeleen maila: Batx 1-2 maila

Ikusleak: DBH 1 eta DBH 2 mailak

Iraupena: 15 bat minutu



16 asteartea

Antzezlanak: **NI EZ NAIZ TXOTXOLO**

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Zumaia Maria eta Jose Ikastetxea (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH 5 maila

Ikusleak: LH 3, 4 eta 5 mailak

Iraupena: 45 bat minutu

Antzezlanak: **IHOLDI II RISTORANTE**

Ordua: 15:30ean

Ikastetxea: Donostiako Zurriola Ikastetxea (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH 5-6 maila

Ikusleak: LH 4, 5 eta 6 mailak

Iraupena: 60 bat minutu

17 asteazkena

Antzezlanak: **MAMMA MIA (musikala)**

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Bilboko Kirikiño Ikastola (Bizkaia)

Antzezleen maila: DBH 4 maila

Ikusleak: DBH 1 eta DBH 2 mailak

Iraupena: 30 bat minutu

Antzezlanak: **HOLLYWOODEKO IZARRAK**

Ordua: 11:00etan

Ikastetxea: Bilboko Kirikiño Ikastola (Bizkaia)

Antzezleen maila: DBH 4 maila

Ikusleak: DBH 1 eta DBH 2 mailak

Iraupena: 30 bat minutu

Antzezlanak: **BIRZIKLEATU TXIKLE-CLOWN**

Ordua: 15:30ean

Ikastetxea: Lasarte- Oriako Landaberri (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: LH 6 maila

Ikusleak: LH 3, 4, 5 eta 6 mailak

Iraupena: 40 bat minutu

Antzezlanak: **ON KIXOTE**

Ordua: 15:30ean

Ikastetxea: Lasarte- Oriako Landaberri (Gipuzkoa)

Antzezleen maila: DBH 2 maila

Ikusleak: LH 3, 4, 5 eta 6 mailak

Iraupena: 20 bat minutu

ESTRENALDIA

18 osteguna

Antzerki alternatiBoa

“KALE EDO BALE?”

HORTZAKA TALDEA

21:30ean, Gaztetxean



Ez da erraza etxe bizitza aldaketa bat egitea. Kaxak handik eta hemendik, elkar bizitza bat finkatu beharra.

Hankaz gora etxea, hankaz gora dena!

Hiru protagonistek parte hartzen duten elkarbizitza honbetan, zer espero duzue? Geuk ere oraindik ez daukagu garbi!

Etorri, ikusi eta gozatu!

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaria eta gidioa: HORTZAKA
- Aktoreak: Iñigo Aranbarri
Ane Arenas
Erika Olaizola



Hotzari aurre egiteko plana! Kafe beroa eta antzerki eroa!

XXVI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

19 ostirala

Helduen antzerki emanaldia

“ERRAUTSAK”

LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN eta ARTEDRAMA

21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Hodei hil da. Gaztaroko lagunak, urteetan elkarren berririk izan gabe egon ondotik, Hodeiren hiletarako bilduko dira. Saminak eta berriz elkartzearen emozioak eraginda, Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da. Iraganeko eta oraineko egiak, gezurrak eta kontraesanak azaleratuko dituen gau eroa.

Noizbait izatea amestu eta sekula izan ez zirenaren errautsak baino ez dira geratzen, ordea.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaria: Ximun Fuchs
- Aktoreak: Ximun Fuchs
Ander Lipus
Miren Gaztañaga
Manex Fuchs
Ainara Gurrutxaga
Urko Redondo
- Ekoizpena:
Le Petit Théâtre de Pain eta ArteDrama
(Lipus)
Dejabu Panpin laborategia




20 larunbata

Helduen antzerki musikatua

“DEMODE QUARTET”

ZPT

21:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Demode Quartet umorez betetako musika ikuskizun harrigarria da, taldea eratzten duten lau kideek saio berezia eskainiko baitigute beren nortasun xeblearekin. Antzerki ikuskizun honetan, *a capella* abestutako bertasioak entzungo ditugu, baina baita pianoz, gitarraz, biolaz eta kaxoi flamenkoz lagundutakoak ere; koreografia atseginak eta elkarriketa bitxiak. Hitz gutxitan, ordubete eta hoge minutuko show guztiz dibertigarria.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaria eta gidioa: Patxi Barco
- Aktoreak: Mikel de la Fuente
Joli Pascualena
Mikel Espinal
Iker huitzi
- Soinu Teknikaria: Eva Rada
- Argi Teknikaria: Javier Pérez
- Euskara itzulpena: Julia Marín
- Banaketa: ZPT banaketak

XXVII

ESTRENALDIA

21 igandea **Txiki+Handientzako**

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

“EXODO”

EN LA LONA

18:00etan, herriko kaleetan eta
Plaza Nagusian



Exodoa...
arimen ihesa
Exodoa...
behartutako bidaia
Exodoa...
etorkizun ezezaguna
Exodoa...
ezagutzen ez duzunera iristea
Exodoa...
bizirik egotearen ospakizuna.

Exodo antzezlanean dantzak, erritualak, akrobaziak, antzerkia eta umorea nahasten dira.

Exodo ihesi joandakoei, iraganekoei zein oraingoei, eta 2050. urtea baino lehen aldaketa klimatikoaren ondorioz ihesi joan beharko duten 250 milioi “ingurumen-lekualdatuei” egin nahi zaien omenaldia da.

Hunkitzeko, hausnartzeko eta barre egiteko ikuskizuna.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Zuzendaritza: Andrés Fresno- Paula Alfieri
- Antzezleak: Aicha Kone
Nerea Ariznabarreta
Paula Alfieri
- Koreografia: Aicha Kone.
- Jantziak eta makillajea: Paula Alfieri
- Zuzendari artistikoa: Paula Alfieri
- Egitura metalikoak: Borja Izaola
- Ekoizpena: En La Lona S.C




21 igandea

Helduen antzerki emanaldia

“XAKE”

OIHULARI KLOWN

19:30ean, Izarraitz Pilotalekuan



Aberastasuan eta baliabideak pribatizatzen diren eta bazterketa eta miseria gizarteratzen diran mundu honek min egiten digu. Neoliberalismo ekonomikoak, ardurarik gabeko kontsumoak, giza eskubideak urratzeak, amaizten ez diren gatazka armatuak, lurraren beroketak, kanpo zorrak, desplazatuak, desertizazioak, xenofobiak, ustelkeriak, emakumeen aurkako indarkeria, garapen ez-iraunkorrek, indigenen aurkako jazarpen bortitzak... Ez zaigu arrazoirik falta larritzeko, eta beraz, barre eginarazten saiatzeko gai ugari ditugu; izan ere, gure ustez, orain inoiz baino garrantzitsuagoa da, itxaropena ez galtzarekin batera, umorea ere ez galtzea.

Fitxa artistikoa eta teknikoa:

- Clowns: Amaia Arriaran
Anduriña Zurutuza
Maider Galarza
Andoni Egaña
- Gidoia eta Zuzendaritza: Virginia Imaz
- Zuzendaritza Laguntzailea: Txefo Rodríguez
- Argien Diseinua: Jose Carmelo Muñoz
- Musika: Txefo Rodríguez
- Jantziak: Pilar Gonzalez, Raquel Quijera
- Eszenografia eta Atrezzoak: Kukuma
- Publizitate Disenua: Txomin Imaz
- Euskerara Itzulpena: Ainoa Agirrezabaldegi Rekondo



Enparan Dorretzeko hirugarren solairua Antzerkizale Elkartearen egoitza bilakatuko da laster. Azpeitiko Udalarentzat eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearentzat onuragarria izango den lankidetzaren bidez, Azpeitiko herriak antzerkiarekiko betidanik erakutsitako zaletasuna eta aldeko jarrera sustatu eta indartzeaz gain, Euskal Herri mailan arte eszenikoen leku erreferentziazkoenetako bat bilakatze bidean aurrerapauso polita izango delakoan daude arduradunak.

EHAZE iazko udazkenean sortu zen euskarazko antzerkiak dituen hutsune eta beharrei irtenbide bat emateko asmoz. Antzerkizale Elkarreak, euskarazko antzerkia ardatz izanik beti ere, euskal antzerkigintzaren eskakizunei erantzutearekin batera, euskal gizartean eta kulturgintzan antzerkizaleen ahalegina bideratzea du helburu nagusia.

Bide horretan, hainbat pauso eman ditu dagoeneko EHAZEK. Ekainean, I. Batzar Orokorra burutu ondoren, bere burua aurkeztu zuen festa baten bidez, eta Esperientzixak izeneko gogoeta gunea egin zuen. Azpeitiko Topaketak amaitzearekin batera, eta jarraipen bat emateko asmoz, azaroaren 27an I. Antzerkizale Eguna ospatuko dute Villabonan. Bertan, antzerkiaren mundua osatzen duten jarduera eta arlo guztiak euren artean ezagutu eta jendeak EHAZEren berri izatea nahi dute.

Antzerkizale Elkartearekin harremanetan jarri nahi dutenek antzerkizale@hotmail.com helbide edo 675 945 734 telefono bidez egin dezakete; "ateak irekita egongo dira eta beso zabalik hartuko ditugu talde, elkarte edota norbanakoen iruzkinak, gogoetak eta proposamenak".

XXVIII.



EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

